

## Usurbildik Hernanira martxa enplegu suntsitzearen aurka



“Dominikar Errepublikan egunean bizi dira, eguneko jakia lortzeko egiten da lan”

Larraitz Sorobe eta Raquel Montoya Dominikar Errepublikan egin dituzte magisteritzako praktikak. Eurekin bildu gara bizitako esperientzia ezagutzeko. **4/5**

Enplegua suntsitzearen aurka martxa antolatu zuen ostiral goizean LAB sindikatuak. Goizeko 9:00etan abiatu zen Usurbildik Hernanirantz.

10:00ak aldera Lasarte-Oriatik igaro ziren Buruntaldean langileriak eta lan esparruak bizi duen gainbehera salatuz.

Lasarte-Oria 2008ko uztailean 720 langabetu izatetik otsailean 1.329 izatera pasa da. Urte eta erdian ia bikoiztu egin da zifra; egun langabezia tasa %15eko da. Egoera alar-ma gorrian dagoela salatu nahi izan dute sindikatu aber-tzaleko ordezkariak.

Larunbatean ere “errefor-men aurrean lagileok eredu berri bat” aldarrikatu zuten Ela/Lab-Esk-Estee/Ei las-Ehne eta Hiru sindikatuek Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Gipuzkoar hiriburuan jende ugari bildu zen. •



LABek ostiral goizean enplegua suntsitzearen aurka egin zuen martxak Lasarte-Oria zeharkatu zuen.

## Emanaldi ederra The Billy Jeans taldearen eskutik

The Billy Jeans taldeak Kontzertu ederra eskaini zuen ostiralean gaueko 23:00etan hasita. 2007an eraturako talde honek eskainitako Jam Session-a ikusteko jende ugari bildu zen Jalgin. Dantzan, giro onean, egon ziren bertaratu zirenak.

“Billyin” estiloko musika entzuteko aukera egon zen. Laukoteak bere estilo propioa du, taldekideek aurretik zituzten rock, funk, reggae eta hip hop estiloen eraginaren nahasketa. Musika eginez ondo pasatu daitekeela argi erakutsi zigun taldeak. •



Merezitako txalo zaparradak jaso zituen laukoteak, kontzertu bikaina eskaini baitzuen.

## ALBISTEA /2

Lasarte-Oriako korporazioak Nejapako alkatesari harrera egin zion ostiralean

## GURUTZE GORRIA /8

Gurutze Gorriaren Astea ospatu dute euren lana herritarrei hurbiletik erakusteko

## BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pateak

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi Barren kalea 3 • Tel.:943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

## Bideo Lagunak

**Ez zaitzala harrapatu itzaldi analogikoa !**

**Inguruko erakusketarik onena!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



## Nejapako alkatesaren bisita ostiralean

Wanda Calderon, Nejapako alkatesak ostiralean gure herria bisitatu zuen. Eguerdi partean Udalean harrera egin zioten herriko zenbait zinegotzik. Nejapa eta Lasarte-Oria senidetutak daude, El Salvadorreko herri honetako pobrezia-ri eta egoerari buelta emateko asmoarekin.

Proiektu asko jarri dira abian senidetasun hitzarmen eta Lasarte-Oriaren elkartasunari esker, denon jakinean

dagoen Froilan Elespe eskola adibidez.

Nejapako alkatesak hilabete bat darama estatu espainarrean, senidetasun harremanak dituen herriekin kontaktuan jartzeko. Egin behar asko dute Nejapa inguruan. Buruan dituzten proiektuak aurrera eramanez ahal izateko diru laguntzak behar dituzte eta laguntza horiek eskuratu ahal izateko euren asmoak aurkeztu zituzten. •



## Gazteak bide-segurtasuna ikasten

1.500 euroko saria jaso dute Usurbilgo Lanbide eskolako Markel Portillok eta Lasarte-Usurbil institutuko Josu Alkortak. Hain juxtu, bi ikasle hauek izan dira sarituak Lasarte-Oriako udaletxeak, Michelin Fundazioak eta bi ikastetxe hauek elkarrekin antolatutako bideko segurtasun bialeko ikastaroan. Orotara 226 ikasle parte

hartu dute ikastaro honen hiru saioetan. Gidatzerakoan abiadura egokia, alkola eta drogaren eragina, gerrikoaren garrantzia edo kaskoaren beharra izan dira jorratu dituzten gaietarikoz batzuk. Honetaz gain, gidatzerakoan beharrezko den segurtasuna indartzeko istripu sumulakrotan bideok ikusi zituzten. Ikastaroa aurrera joan

ahala parte hartzaile guztiak test bat bete behar izan zuten galdera ezberdinekin, eta erantzun guztiak asmatu zituztenen artean 1.500 eurotako bi sari zozketatu dira.

Sariarekin karneta ateratzeko aukera izango dute irabazleek, eta jada baldin badaukate, ondo gidatzeko ikastaroetan enplegatzeko aukera izango dute. •

# Apellidoak Abizenduz egitasmoa martxan

Buruntzaldeko udal euskara zerbitzuak berriro ere, jatorriz euskarazko abizenak euskarazko grafian idatzita jartzeko aukera martxan jarri du. Oso erraza den ekintza dugu eta hori ezagutzeko helburuarekin Buruntzaldeko udalek ekimen hau jarri dute biztanleen eskura.

**A**guirreche, Echeverría, Jauregui, Arregui, Erquicia, Aguirre... euskaldun abizenak diren arren, dokumentu ofizialean euren jatorrizko grafia albo batera utzi eta erderazko grafia erabili behar izaten da erroldan abizenok horrela agertzen direlako.

Baina abizena jatorrizko eran idatzi nahi duzula? Orain eta modu errazan egite-

ko aukera eskaintzen dute kanpaina bati esker. Izan ere, Buruntzaldeko udal euskara zerbitzuek *Apellidoak Abizenduz* ekimena jarri dute berriro abian.

Jatorrizko euskarazkoak diren abizenak agiri ofizialean bere jatorrizko grafiakin ager daitezten, hori lortzeko bidea zein den azaldu nahi diete Buruntzaldea eremuko biztanleei.

### Komplexutasun eza

Udaletxera eta Bake Epaitegira joan behar da abizena bere jatorrian bezala idatzita agertzeko.

Donostian jaioa baldin bazara, ordea, Bake Epaitegira joan beharrean, Donostiako erregistro Zibileria hurbiltzea baino ez duzu.

### Zer behar da?

Udaletxean emango dizuten errolda-agiria; jaioterriko Bake Epaitegian eskuratzen diren jaiotagiri ofiziala eta NANren fotokopia dira abizenaren grafia aldatzeko behar diren hiru agiri ofizialak.

Ezkonduek edo seme-alabak dituztenek, aldiz, Familia

liburua ere beharko dute aldatzeko.

Aipatutako paper hauek guztiak, herriko Bake Epaitegira eramanez, eta han bertan abizenaren aldaketa egingo dizute.

Zalantzarik izanez gero, zure herriko Bake Epaitegian galdetzea baino ez duzu, han beharrezko argibide guztiak emango dizkizute.

### Buruntzaldeko ekimena

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek euskararen arloan elkarrekin aurrera eramaten dituzten ekintzetariko bat dugu *Apellidoak Abizenduz* eta tokian tokiko bake-

epaitegiekin lankidetzan burututako ekimena dugu hau.

### Agur 'ch', 'qu' edo 'gu'

Badira urte batzuk ekimen honi hasiera eman ziotela Buruntzaldeko udal euskara zerbitzuek.

Eta harez geroztik, dozenaka herritarrek dira jada Echeverría, Aguirre edo Erquicia izateari utzi diotenak, eta Etxeberria, Agirre eta Erkizia izatera pasa direnak.

Ikusi duzutenez, modu errazean lortu dezakezu zure abizen euskaldunak eskatzen duen grafia euskalduna bereganatzea.

Ez galdu aukera! •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Plazaola parkea irudikatzen

■ Eremuan jabetzak dituztenen kexak nagusitu ziren berriz berez nekazal-parkea egiterako ideiak jasotzeko egindako bilera ■ Lurren %92a hitzartua du Udalak

Udalak Lasarte-Oriako "birika" bihurtu nahi duen Plazaola parkea nolakoa izango den aztertzeko eta erabakitzeo aukera eman die Udalak herritarrei, Kudeatuz parte-hartze egitasmoari esker, baina ostegunean egin zen bigarren bilera ere parkea jarriko den eremuan jabetzak dituzten herritarren iritzi kritikak gehiago izan ziren, parke berriari buruzko ekarpen, proposamen, ideia edo iradokizunak baino. Udalak jakinarazi du, parkea hartuko duen lur zatia %92a hitzartuta daukela eta %8a soilik duela eskuratzeko. Hauekin adostasunik ez bada, espropiazio edo dejabetzen bidea hartuko du Udalak.

Iñaki Mugica Udaleko hiritzintza batzordeko arduradunak, eta arlo honetako zenbait Udal teknikariak, eman zituzten Plazaola Parke berriari buruzko azalpenak, aurreko ostegunean Kultur Etxean egin zen bilera. Kudeatuz, herritarren parte hartzea bultzatu asmoz martxan jarri den egitasmoaren bigarren bilera horretan 50 bat herritarrekin parte hartu zuten, baina parke berriari buruzko ekarpenak egitera joandako herritarrek baino gehiago ziren eremu horretan jabetzak dituztelako informazio bila eta euren iritzia ematera joan zirenak.

Dena den, Udaleko ordezkariek zein Kudeatuz dinamikazatzen ari den Aztiker enpresako bi dinamizatzaileek behin eta berriro azaldu behar izan zuten ez zela hori horretarako tokia, hau da, kasu kon-



Iñaki Mugicak, Eli Astiazaran Aztikerreko dinamizatzaileak eta Udaleko teknikariak eman zituzten azalpenak.

kreto eta partikularrak jorratu nahi badituzte bakarka eta zuzenean Udalarekin hartu-emanetan jarri beharko dutela.

Hala ere, Udaleko ordezkariek argi eta garbi utzi zuten, 211.000 metro karratuko eremu horretako lur guztiak erosiko dituela Udalak, harremanetan jarriko direla jabeekin eta adostasunik ez den kasuetan nahitazko desjabetzearen bidera joko dutela. Gainera, jada lurren %92a erostuta edo hitzartuta dutela jakinarazi zuten, hau da, 212.000 metrotik 17.000 direla oraindik eskuratzeko dituztenak.

## Hainbat proposamen

Iñaki Mugicak azaldu zuenez, Plazaolako parkeko proiektua egokia iruditu zitzaizkeen herritarrei parte hartzeko aukera emateko oraindik finkatu gabe dagoen egitasmoa delako.

Beraz Udalaren asmoa herritarren iritzia jasotzea da gero parkea egiterakoan kontutan izateko. Lehen bileretan

herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dute eta laster egingo den hirugarrenean ideia guztien artean egokienak aukeratu dira.

Lehen bilera hauetan hainbat aukeretz aritu dira, besteak beste: Oinezkoen bide eta bidegorriak, aisialdi eta jolas gunea, atsedeen lekua barba-koa, mahai, jarleku eta komunekin edota bost pulgadatarako zirkuitua jartzea, errekatxoari bizitza eman eta bazterrak txukuntzea, iturriak berreskuratzea, San Franciscotik sarrera irekitzea, parkean Lasarteko historia azaltzea,...

Osteguneko bilera ingurumen teknikariak Parkea jarriko den eremuaren ezaugarri nagusiak azaldu zituen. Parkearen bizkarrezurra Oztaran errekatxo izango da: landaretza mantendu duen zatia zaindu eta galdu duena errekeratze asmoa dago. Gainera oinezko eta txirindularientzat bideak jarriko dira eta saiatuko dira Urnietako lurretan den tunel

baten oztopoa gaintuz Andoaingo ibilbidearekin lotzen, horrela Lekunberrira eta Tolosara doazen bideekin lotuko baita.

## Lur denak erosiko dira

Plazaolako irudi eta planoak eta Andoaingo Leizaran inguruko irudiak ere erakutsi zituzten ostegunean, gutxi gorabehera Lasarteko parkea zer izan daitekeen irudikatzeo. Dena den Andoaingo lurrak erabilera pribatua dute, ez da parkea, ibilbidea baizik. Galdera interesgarri bat egin zuen herritar batek bileran, ia ez zen posible izango Lasarte-Orian parkearen zati gehiena publikoa baina eremu-ko lur batzuek pribatuak izatea eta udal ordezkarien erantzuna ezezko borobila izan zen.

Lasarte-Orian sail osoa Udalarena izango da eta herritarrentzat egokituko da. Lasarte-Oriatarrek nolako parkea nahi duten aukeratzeko modua eta erakargarria izan dadin nahi duten gauzak gehitzeko aukera dute oraindik. •

## FESTAK

### San Pedro jaiak ekainaren 26tik 29ra ospatuko dira

Gazteria eta Festetako batzordeak aho batez onartu du, alkatetzaren proposamenari kaso eginetz, datozen San Pedro jaietako datak aldatzea eta aurten ekainaren 26tik 29ra burutuko dira herriko jaiak.

Era honetara, San Pedro festak asteburuaren egingo dira, beti ere, ekainaren 29aren data errespetatuz.

Herritar ugariaren eta ostalarien eskariak jaso ondoren, gobernu taldeak erabaki zuen aldatzea proposatzea. Honek gainera hurrengo urteetako sanpedroetan ere eragina izango du. Jendeak parte hartzeko aukera gehiago izatea bilatzen du ekimen honek eta, aldi berean, aisia eta loaldia uzartu nahi izan dira asteburuarekin bat eginetz.

Jesús M<sup>o</sup> Zaballos alkatearen hitzetan, "aurreko urteetan momentuko akordioak egin izan ditugu ostalariarekin zenbait jardura festen aurreko asteburuaren egiteko, izan ere, jendetza gehien elkartzen den egunak izaten baitira. Oraingo honetan erabaki dugu zuzenean festen egunak aldatzea, guztiontzako onuragarria izango delakoan."

Zaballos alkateak aurreratu duenez, aurten emaitza ona izaten bada, hemendik aurrera ere dinamika honekin jarraituko da urte urte San Pedro jaietako egunak zehazteko orduan. •

## Aberri Egun bateratua egiteko deia

**Independentziaren lagunek Aberri Egunean balkoietan ikurriñak jartzeko eta kalera ateratzeko gonbidapena luzatu dute. Euskal Herriko osoko independentistak Irun eta Hendaian elkartzeko dira apirilaren 4an. Bertan aldarrikapenak eta ospakizunak bat egingo dute.**

Lasarte-Orian Independentziaren alde ari diren lagunek herritar guztiei gonbidapena luzatu diete apirilaren 4an Aberri Eguna ospatu dezaten: "Aspaldiko partez, ospakizun eta aldarrikapen egun bateratu bat egiteko parada izango dugu Euskal Herri osoko independentistak. "Independentistak" sarearen eskutik etorri zaigu 2010eko Aberri Egunean

kalera ateratzeko gonbitea".

Independentziaren aldeko lagunek jakinarazi dutenez, "independentzia eta demokrazia ardatz harturik" "Independentistak" izena hartu duen sarea egungo dinamika politikoko antzua iraultzeko prest agertu da. Beraz, herriko independentista guztiei deia luzatu diete sare honi babesa eman, zenbait ekimenetan parte hartu eta apirilaren 4an Irun eta Hendaian egingo diren ospakizunetara joateko.

Goizeko 11.30etan bi mar-txa abiatuko dira Irungo Txanaleta plazatik eta Hendaia-ko Gazeluzar frontoitik, bi zutabeak Santiago zubian elkartuko dira eta elkarrekin egingo dute Ficobaraino bidea.

Independentistek aukera

ezberdinak dituzte, Aberri Egun Bateratuarekiko eta Independentistak sareak argitara emandako "ari gara" aldarrikapenarekiko atxekimenduak adierazi daitezke, eta apirilaren 4an Aberri Egunean parte hartu: balkoietan ikurriñak jarri edota Irun-Hendaia-ira joanaz.

"Ari Gara" ekimenaren idatzian aldarrikatzen da Independentzia dela "Euskal Herriarentzako aukerarik onena": "Gure naziotasuna, gure hizkuntza, gure kultura, gure ekonomia, gure jendarearen aurrerapena eta ingurumenarekiko oreka bermatzeko biderik zuzenena delako, gure herriko bazter guztietara hedatuko dugu independentziaren aldeko aldarrikapena...". •



## 550 euro bildu dira Haitiri laguntzeko

Boltsoak, liburuak, diruzorroak... euro baten truke. Larunbatean sagardotegi kaletik pasa zirenek haitiarrei laguntzeko aukera izan zuten, eta horren truke opari bat lortzeko parada. Guzti hau Ostarte gazte taldeak eta Institutuko DBH4 mailako ikasleak, herriko dendariaren laguntzarekin antolatutako tonbolan.

Sari interesgarrienak arratsaldeko 20:00etan zozketatu ziren. Hauek izan ziren zenbaki saridunak: 1297 bizikleta, 0989 aspi-ragaillua, 1070 labain elektrikoak, 0805 kafetara eta 1554 xafla. Zenbakien jabeek saria lortzeko 677680054 telefono zenbakira deitu beharko dute. •





# ‘Bertso Konposta’ interesgarria

Zubietako erraustegiaren aurka eta atez ateko bilketaren alde kantatu zuten sei bertsolarik

Jende mordoxka bildu zen ostiralean Kultur Etxean errausketaren aurka eta atez ateko bilketaren alde Andoni Otamendi, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Iñaki Zelaia, Josu Oiarzabal eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariek eskaini zuten saioan. Asier Aspiroz bertsolari gaztearen gai erantzunez beraien iritzia eskaini zuten inguruko sei herritako ordezkari izan ziren sei bertsolarik. Erraustegiaren aurkako plataformek antolatatu zuten bertso-saioa arina eta “garbia” izan zen.

JON ALTUNA

**B**ertsolari bakoitza bizi den herriko alkatearen paperean jarri zituen hasteko Asier Aspiroz gai jartzailak, bakoitzak bere herrian zaborren kudeaketari buruz duen jokabidea azaldu zezan eta ordutik aurrera Andoni Otamendi lasarteoriatarak, Jesus M. Zaballos alkate gaztearen ahotik kantatu zuten behin baino gehiagotan.

Sei bertsolariak Zubietako erraustegiaren eragina jasango duten herrietan bizi dira eta sentimenduz jositako iritziak plazaratu zituzten. Gaztelumendi Odon Elorza izan zen, Alaia Martin Aitor Etxeberria Oiarzango alkatea, Iñaki Zelaia, Marian Beitialarrangoitia Hernanikoa, Josu Oiarzabak Usurbilen bizi denez, Xabier Mikel Rekondo eta Iñaki Gurrutxaga Jon Redondo Orioko alkatea.

Er zen jende asko bildu

Zubietan eraiki nahi duten Erraustegiaren aurka dauden plataformek antolatutako saioan baina Kultur Etxean elkartu ziren 60 lagun inguruk ondo pasa zuten bertsolarien ateraldiak. Denetarikoa gaiak izan ziren baina bizpahiru aldiz kantatu behar izan zuten zaborren inguruan.

Unai Gurrutxaga zabor biltzailea izan zen eta bakoitzak zein zabor botatzen zuen kontatu behar izan zuten, esaterako Beñat Gaztelumendiren ehundaka amodiozko karta, erdi gaixo zebilen Alaia Martinen botika potoak, edota Andoni Otamendik lehen kondoia eta orain umeen paketeak.

Une batean Atez ateko bilketaren aldeko propaganda egitera ikusleen artera jaisteko agindu zien Asier Aspirozek Josu Oiarzabal, Iñaki Gurrutxaga eta Alaia Martin-i eta hauek slogan eta slogan artean, gaiaren inguruko bertso paperak banatu zituzten jende artean. Ondoren Andoni



Andoni Otamendi lasarteoriatarra eta inguruko herrietako beste bost bertsolari aritu ziren Kultur Etxean bertsoan.

Otamendik ikusleen laguntzarekin abestu zituen Juana Bixenta Olabe doinuaren egin-dako lau bertsoak:

## Bertso paperak

Errausgailua, errepideak, txiki-zioak, zentzurik gabeak. Agintari jaunen erasoak, bota, txikitu, mendi basoak. Haei Andatza, gutxi ardura zaiela antza, aurrerapena, horretan datza.

Egun maitatzen, al da natura? Izan beharko luke denon

ardura. Galdua ote dugu zentzurik abestu zituen Juana Bixenta Olabe doinuaren egin-dako lau bertsoak:

Berrerabili, erreziklatu, norberak zaborra ondo sailkatu. Egoki erabili ontzia, koloreak badu garrantzia. Zaborrak zero, arduraz lana eginez gero, erre beharrik ez dago gero.

Epe motzean hor da Oiarzuntz, Usurbilek badu hainbat oihartzun. Prestatua daukagu Hernani, Urnietan ere hala

komeni. Eta Lasarte, ezin geratuko da aparte, herririk herri, aterik ate.

Agurrean ere argi geratu zen bertsolarien jarrera. Esaterako Iñaki Zelaia zera bota zuen, gutxi gorabehera, “Ez da dudarik erreziklatzen, aritu gara gustora, papera alde batera eta, plastikoa beste txokora, organikoa konpostarako egin ezazue frogia, eta hala ere, agertzen bada, tximinia bat hor gora, behintzat zuen kontzientzia, lasai lasai egongo da. •

## Semblante Andaluz 18. urteurrena ospatzen

**E**z badirudi ere, 18 urte pasa dira jada Semblante Andaluz Elkarteak Lasarte-Orian atekari ireki zituenetik. Andaluziar asko bizi da herrian eta euren jaioterriko ohiturak eta tradizioak ez ahazteko eta eurekin gozatzeko, egun konkretuetan Lasarte-Oriak ere hegoaldeko inguru horren itxura hartzen du. Herrian aski ezagunak dira jorratzen dituzten ekin-tzak eta ekitaldiak. Eta horren isla antolatzen dituzten ekitaldi guztietan lortzen duten publiko zabala.

Adin nagusitasuneran iritzi da Semblante Andaluz eta hori ospatzeko ekintza ugari prestatu zituzten asteburuan. Ostiralean bertan hasi ziren film emanaldi eta mahai inguru

batekin. Larunbat eguerdian, ospakizuna izan zen, lunch bikaina eskaini zitzaizkien elkar-tertera hurbildu zirenei, eta arratsaldean, nola ez ba, Flamenko ikuskizuna. Jende ugari bildu zen eta ederki pasa zuten flamenko musikarekin.

Igandea izan zen egun nagusia, eguerdian ohorezko ardoa prestatu zuten, eta ondoren bazkaria. Ez dago ospakizun hoberik otordu eder batekin lagundutakoa baino.

Ospakizunei amaiera emateko, bazkalostean Duende Flamencoren ikuskizunaz gozatzeko parada izan zuten Semblante Andaluz elkartearen 18. urteurreko ospakizunetara hurbildu ziren guztiak.

Heldutasun adinera iristea-gatik, Zorionak Semblante!. •



Bere 18. urteurrena ospatu zuten asteburuan zehar Semblante Andaluzek, ilusioz josia, hainbat ospakizunen bidez

## Ostirala, 16

### Kontzertua

YDILIA rock taldeak kontzertua eskainiko du, Xpression eta Lasarte-Oriako Udalak Gazte ekimenak bultzatzeko duela hilabete batzuk eginiko akordioaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, iluntzeko 20:00etan hasita.

### Antzerkia

GEZURREZKO PRINTZEA antzezlan, Txirene antzerki taldearen eskutik. Jalgi kafe-antzerkian, iluntzeko 21:30ean.

EUSKARAZ.

## Larunbata, 24

### Antzerkia

GRAMOLA haurrentzako antzezlan eskainiko du Txorro Morro antzerki taldeak. Jalgi kafe-antzerkian, arratsaldeko 18:00etan.

EUSKARAZ.



## Garikoitz Lasaren Su Laztanak

GARIKOITZ LASAREN lanak ikusgai izango dira apirilaren zehar Jalgi kafe-antzerkian, egun osoan. Zuraren gainean egindako pirografia-lanak egiten ditu Donostiako artisauak, batik bat pilota-jokorako paletan, edora egurrezko beste zenbait euskarrietan. Enkarguz agindutako motiboak pirografiatzen ditu, nahi diren izen, data edota testuak, hainbat irudirekin batera: erretratuak, abizenak, armariak, lauburuak, baserriak, Donostiako Haizeen Orrazia, Euskal Herriko mapa, estelak eta abar. Zintzilikarioak ere egiten ditu zuzerko puska txikitian.

APIRILEAN, JALGIN EGUN OSOAN ZEHAR

## Kiroletako agenda

### SQUASH

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, kiroldegian

### Astelehena 29

Joaquin Peña-Kinin Calvo  
Fernando Montero-Xabi Amiano

### Asteartea 30

Iker Cañedo-Iñaki Garcia

### Asteazkena 31

Iker Serrano-Javier Serrano  
Raul Mateos-Aitor Artola

### Asteartea 6

Mikel Zugazti-Emilio Hernandez  
Patxi Delgado-Oswal Cañedo

### Asteazkena 7

Agustin Erkizia-Joaquin Peña  
Alberto Udabe-Fernando Montero

### Osteguna 8

Xabi Amiano-Iker Cañedo

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Aste Santuko Lasarte-Oriako elizkizunak

### Ostegun Santua, apirilak 1

11:00etan Arantzazuko amaren elizan aitorza.

ELEBIETAN

17:30ean Brigitarren komentuko kaperan Meza Santua ELEBIETAN

19:00etan Arantzazuko amaren elizan Meza Santua GAZTELERAZ

19:00etan San Pedro elizan Meza Santua.

EUSKARAZ

22:00etan Brigitarren komentuko kaperan Ordu Santua ELEBIETAN

### Ostiral Santua, apirilak 2

8:00etan San Pedroko eliztarrek Gurutze bidea egingo dute Kalbario bidean

10:00etan Arantzazuko amaren elizakoek Gurutze bidea egingo dute Azkorteran

11:00etan Brigitarren komentuko kaperan Gurutze bidea egingo da

16:30ean Brigitarren komentuko kaperan Pasioa antzetzuko da

ELEBIETAN

18:00etan San Pedro elizan Pasioa antzetzuko da GAZTELERAZ

18:00etan Arantzazuko amaren elizan Pasioa antzetzuko da EUSKARAZ

### Larunbat Santua, apirilak 3

19:00ean Brigitarren komentuko kaperan Bazko gaubela egingo da ELEBIETAN

21:00ean Arantzazuko amaren elizan Bazko gaubela egingo da ELEBIETAN

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Oharrak

### Ikurrinak balkoietan Aberri egunean

Lasarte-Oriako Bai Euskal Herriari taldeak deialdia egin nahi du apirilak 4ean, Aberri eguna dela eta, herriko balkoietan ikurrina jartzeko. Ikurrinak salgai daude, 6 euroren truke, Bai Euskalherriari-ren web orrialdean. www.baieuskalherriari.org. Nazioa gara, estatua behar dugu!

### Iruzurren abisua

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak jakin duenez, egai-ruaren bidez egindako lapurreta bat izan da udalerrian. Diputazioko teknikariak direla esanez, bi pertsona sartu dira Lasarte-Oriako etxebizitza batean jabeen baime-narekin, eta momentu hori aprobetxatu dute lapurtzeko. Hori dela eta, antzeko egoerak aurreikuszeko eta saihesteko, alkatetzak honek arreta eskatzen die herritarrei.

Halaber, Lasarte-Oriako Hai-tirekin maratoi solidario batean

laguntzeko aitzakiarekin, diru kopuru bat eskatzen ari zaie komertzio eta tabernei. Udaleko Erregistroan kirol proba hau burutzeko instantzia bat aurkeztu badute ere, datu falsuekin egin da eskaera, eta beraz, ez dago horrelako maratoi solidarioari aurreikusita.

### Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatzela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrekoa, diruzorria, urrezko katea, zilarrrezko zintzilikarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horela izan ezean,

legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### 60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

### Zerbitzaria behar da taberna batean

Lasarte-Oriako taberna batean asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. Interesatuek deitu 619 468 751 telefono zenbakira

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).





Lasai, istripu baten simulakroa baino ez da iruditan ikusten duguna. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu.

# Gurutze Gorria hurbiletik ezagutzeko aukera

TXINTXARRI

**G**urutze Gorri erakundeak beraien lana ezagutzera emateko Gurutze Gorriaren astea antolatu du Lasarte-Orian. Asteaz zehar hainbat jarduerara antolatu dituzte; erakusketak edota tailerrak, baina ekintza interesgarrienak asteburuan izan ditugu ikusgai. Euren materiala eta ibilgailuak hurbiletik ezagutzeaz gain, atzo istripu batean jarraitzen dituzten pautak eta egin beharrekoak azaldu eta erakutsi zituzten Andatza plazan.

Jende ugari bildu zen Andatza Plazan Gurutze Gorriak irudikatutako simulakroa ikusteko eta Gurutze

Gorrikoek burutzen dituzten ekintzak hurbiletik ezagutzeko. Eguerdiko 12:00etan errepide arrunt batean gerta daitekeen istripu irudikatu eta erakutsi zuten. Zorionez! istripu baten irudikapena baino ez zen.

Ezarritako seguritateko kordelaren inguruan bilduta izan ziren ikusleak simulakroak iraun zuen bitartean. Gainera, Gurutzeko Gorriko kide batek bertaratutakoei, ikusten zutenaz gain, argibideak eman zizkien momentu orotan profesional hauek burutzen ari ziren lana ondo ulertu zezaten.

Hau ez da asteburuan egin duten jarduerara bakarria. Larunbatean Andatza Plazara hurbildu zirenek larrialdietan

erabiltzen diren material eta ibilgailuak hurbiletik ikusteko aukera izan zuten. Baina ez bakarrik hori, ostiral arratsaldean erreskate materialak ezagutzeko eta laguntzeko erabiltzen dituzten ibilgailuetan murgiltzeko aukera luzatu zieten lasarteoriatarrei.

Asteaz zehar erakusketak ezberdinak jarri dituzte Andatza, baita umeentzako jolasak ere. Asteartean adibidez, ura harriekin eta lokatzarekin nola iragazi daitekeen erakutsi zuten. Honetaz gain, Gurutze Gorriko lana irudikatzen zituzten argazkiak ikusgai egon dira aste osoan zehar karpan.

Aste honi esker, Gurutze Gorriak jorratzen duen lana hobeto ezagutzen dugu orain. •



“Uran zehar mugituz” erakusketara astean zehar Manuel Lekuona egon da



Erreanimazio kardio-baskularra, denok, jakin beharrekoa.



Ederki pasa zuten umeak erreskate materialarekin jolasean ostiralean AndatzaPlazan jarritako karpan.



Ura lokatza denean, oihal zati bati esker ur garbia lortu dezakegu.